

Momo, liburuetatik pantaila handira

'Momo' filmaren euskarazko bertsioa estreinatuko dute datorren abuztuaren 9an


Michael Ende idazlearen *Momo* liburua ardatz duen filma estreinatuko du, euskaraz, Planeta Juniorrek, abuztuaren 9an. *Momo: erlojupeko abentura* filma Euskal Herriko zinema nagusietan izango da ikusgai.

Filmeko protagonista nagusia Momo da, neskatila lotsati eta maitekorra. Momo umezurtza da, eta anfiteatro zahar baten hondakinetan topatu du bere bizileku berria. Neska atsegina eta alaia izanik, berehala egiten ditu lagun berriak: Gigi, Beppo kale-garbitzaila...

Egun batean, ordea, Gizon Grisak iritsiko dira hirira, eta bertako lasaitasuna eta zoriontasuna apurtuko dute. Gizon Grisek helburu zehatza daukate: mundua menperatzea eta gizadiaren denbora lapurtzea. Las-ter ohartuko da Momo hiriko egoera aldatu egin dela. Jada ezin da inorekin jolastu ezta hitz egin ere.

Gizon Grisen aurka

Momok, Casiopea dortoka magikoaren laguntzaz, Gizon Grisengandik ihes egitea lortuko du. Casiopeak Ordu irakaslea aurkeztuko dio. Ordu irakaslea denborearen administratzailea da, eta berak baino ezin dio lagundu Momori hiritarrak Gizon Grisaren atzaparretatik askatzen. Casiopea dortoka lagun duela, eta Or-



badakizu...



Zein da perretxikorik pozoitsuena?

Perretxiko ugari daude, batzuk jangarriak dira, beste batzuk, aldiz, ez; baina badira heriotza eragin dezaketenak ere. Horixe da *Amanita Phalloides*-en kasua. Zati txiki bat jatea aski da pertsona hiltzeko. Frijitzea ez da nahikoa, sutan jarri arren, pozoiak bere horretan jarraitzen baitu. Bitxia da, baina

perretxiko hori jaten duen pertsona ez da jan eta berehala gaizki sentitzen, bai, ordea, hamar ordu pasatu ostean. Kasu horietan ezin liteke ezer egin, ez dagoelako pozoia- ren aurkako sendagairik. Gizakiarentzat ez ezik, animalientzat ere perretxiko hilgarria da.

